

Zuzendariak: Chris Wedge eta Carlos Saldanha.

Herria: USA.

Urtea: 2005.

Iraupena: 84 min.

Generoa: Animazioa, komedia.

Bikoizketa: Ewan McGregor/Alejo Sauras (Rodney Latorri), Halle Berry/Elsa Pataky (Cappy), Robin Williams/Florentino Fernández (Kerten), Greg Kinnear (Ratchet), Mel Brooks (Soldatzaile Handi), Jim Broadbent (Madame Makina), Amanda Bynes (Piper), Jennifer Coolidge (Izeba Turbina), Paul Giamatti (Tim).

Gidoia: Lowell Ganz eta Babaloo Mandel.

Ekoizpena: Jerry Davis eta John C. Donkin.

Musika: John Powell.

Muntaia: John Carnochan.

Ekoizpen diseinua: William Joyce.

Zuzendaritza artistikoa: Steve Martino.

SINOPSISIA

Filmean, robot ahaztezinak ezagutuko dituzu, besteak beste, Rodney Latorri, asmatzaile gazte eta bizkorra, bazter guztietako robotei laguntzea amets duena; Cappy, robot eder, bizi eta argia, Rodneyk berehala maiteko duena; Ratchet enpresaburu zorrotz ustela, Rodneyrekin tirabiran ibiliko dena; Soldatzaile Handi, norabidea galduta duen maisu asmatzaile bat; eta baztertuak bizi diren robot talde bat, Herdoilduak, Kerten eta Piper Pinwheeler buru dituztela. Kerteni, aldi behin, burua, besoak eta zangoak erortzen zaizkio, une desegokienetan beti. Rodneyk behin eta berriz konpondu behar izaten du Kerten, eta ondorioz, biak lagun handi bihurtzen dira. Piper Kertenaren arreba mari-mutila da, denak aho zabalik uzten dituena bere erabakimen eta indarrarekin. Emaitza kontakizun barregarri eta denboraz kanpoko da, animazioaren esparrutik haratago doana. Pertsonaiak umore onez eta bizitasunez beterik daude; kontakizun adoretua da, ederki asko frogatzen duena robot batek distira egin dezakeela, zerez egingo dagoen kontuan hartu gabe.




1. ADISKIDETASUNA ETA LANKIDETZA

ARIKETA: Kolorezta dezagun!!

Rodney hirira joaten denean bere ametsa betetzera, Herdoilduak ezagutzen ditu, Kerten buru duten robot talde bat. Berehala bihurtuko dira lagun onak. Eta denen artean, Soldatzaile Handiren bila joango dira.

Koloreztatu Rodney eta bere adiskidea, Soldatzaile Handi.



ARIKETA: Nire adiskideak

Seguruenez, zuk ere adiskide onak izango dituzu. Deskribatu haietako bat eta marraztu bere karikatura.

Nire adiskidea _____

ARIKETA: Adiskide baten ezaugarriak

Kerteni besoak, zangoak, burua... erortzen zaizkio beti, unerik desegokienetan gainera. Rodney han dago beti Kerten konpontzeko. Besteei laguntzea adiskide onaren ezaugarria da.



Zer ezaugarri dituzte zure adiskideek, nolakoak dira? Nolako adiskidea zara zu?

Nire ezaugarriak	Nire adiskideen ezaugarriak
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

ARIKETAK: Buruhausgarria

Jar itzazu buruhausgarriaren piezak beren tokian eta adiskidetasunarekin lotutako mezu bat aurkituko duzu. Osatzen laguntzeko, letra batzuk jarrita aurkituko dituzu jadanik.

L		G	U		A		
	D			N			
	U		B	E			
			U		T		
	O				E		

L	A
N	D

Z	U
L	A

K	O
---	---

G	U
O	A

	B
G	U

	P
--	---

N	A
N	

E	T
N	T

R	E
---	---

	O
D	U

I	
Z	E

S	T
---	---

ARIKETA: Lankidetza

Robotentzako ordezko piezak bukatu direnez gero, eta askok ezin dituztenez eguneratzeak edo pieza berriak erosi, Rodney eta bere adiskideak elkarrekin lanean hasten dira robotak konpontzeko.


Guk ere gure adiskideekin eta senideekin batera lan egin behar dugu askotan. Lagundu egin behar diegu. Pentsatu zein diren zure adiskideei eta senideei laguntzeko moduak... Nola laguntzen diezu zure adiskideei, zer egiten duzu haiengatik? Eta zure familiarengatik?

Nire adiskideei laguntzen diet:	Familiari laguntzen diot:
Adibidea: gelako ariketak	Adib: gurasoei laguntzen diet mahaia jasotzen

2. AHALEGINAK EGITEA ETA NORK BERE BURUA GAINDITZEA

ARIKETAK: Labirintoa

Lagundu Rodneyri Soldatzaile Handi aurkitzen, Ratchetek baino lehen.




ARIKETA: Lan egin txukun, ez egin lardaskeriarik

Rodney izugarri ahalegintzen da aitari lanean lagunduko dion asmakizun bat eraikitzen. Ez ditu gauzak korrika eta presaka egiten, baizik eta behar duen denbora hartzen du...

Orain, robot baten marrazkia egingo dugu, baina bi eratara. Lehena, laster batean, arretarik jarri gabe. Bigarrena, ahalik eta hobekien, xehetasun askorekin.

Komentatu gelan zer alde ikusten dituzuen marrazki baten eta bestearen artean.

ARIKETA: Arduratsua naiz nire lanetan



3. BIRZIKLATZEA

ARIKETA: Bilatu eta birziklatu

Filmean ikusten dugu Ratchetek eta bere amak akatsen bat duten robot guztiak baztertu nahi dituztela, eta urtzeko asmotan txikitu nahi dituztela... Hala ere, Soldatzaile Handik esaten duen bezala: *“berria den guztia ez da erabilgarria, ezta zaharra den guztia baztergarria ere...”*

Guk, gure eguneroko bizitzan, gauza zaharrez ere baliatzen dakigu. Latak, plastikozko botilak, papera... ez dira bota behar.... Zerbait berria sortu daiteke eta berriz ere erabili. Horri birziklatzea deitzen zaio.

Inguratu zirkulu batekin birziklatu daitezkeen gauzak...



ARIKETA: Letra zopa

Bilatu birziklatzearekin zerikusia duten honako hitz hauek. Aurkitzeko, begiratu horizontalki eta bertikalki.

Hondakinak, Baliabideak, Kontserbatzea, Produktuak, Birziklagarria, Ongarria, Zabortegia, Toxikoa, Ontziak, Energia, Papera

O	N	T	Z	I	A	K	O	T	O	G	A	S	C	R
N	B	A	S	U	R	E	R	O	Q	S	P	C	Q	H
G	G	B	A	L	I	A	B	I	D	E	A	K	T	O
A	G	E	B	D	A	A	D	M	T	H	C	P	D	N
R	R	P	R	O	D	U	K	T	U	A	K	F	G	D
R	D	X	L	H	O	D	O	T	O	X	I	K	O	A
I	B	O	S	X	N	W	Z	N	T	A	L	S	L	K
A	E	E	Z	A	B	O	R	T	E	G	I	A	O	I
G	J	N	I	U	E	A	B	I	M	D	D	E	A	N
B	I	R	Z	I	K	L	A	G	A	R	R	I	A	A
M	A	K	F	Q	V	R	Y	I	G	M	Q	V	B	K
T	U	U	E	D	A	E	N	E	R	G	I	A	P	M
C	L	G	K	U	R	P	A	P	E	R	A	S	N	W
T	F	E	X	J	J	N	W	Y	Q	O	J	E	G	Q
K	O	N	T	S	E	R	B	A	T	Z	E	A	C	G


ARIKETA: Elkartu gezien bidez

Birziklatzea zer den hobeto jakiteko, hitz zuzenarekin elkartu behar ditugun definizio batzuk ikusiko ditugu.

Hondakinak	Zaborra botatzeko bereziki eraikitako tokia
Baliabideak	Kontu handiz erabiltzea, hondakinak saihestuz
Kontserbatzea	Bildu eta produktu berri bat izateko eraldatu daiteke
Birziklatzea	Pertsonei edo ingurumenari kalte egiten dien zerbait behar bezala botatzen ez bada
Zaborteia	Naturak janari hondarrak eta hondakinak birziklatzeko duen modua.
Toxikoa	Zakarrontzira botatzen diren janari hondarrak, paperak...
Ongarria	Naturak egindako gaia eta bizitzarako beharrezkoa dena. Lehengaia ere deitzen zaio.

ARIKETA: Hondakinak birziklatzea

Ezagutzen duzue gaikako bilketa edo etxeko hondakinen birziklatzea egiten duen inor (senidea, ezaguna, laguna)?



Etxeko zer hondakin uste duzu birziklatu daitezkeela?

Ba al dakizue etxeko hondakin mota bakoitzerako edukiontzi berezi bat erabili daitezkeela? Zein dira eta zer motatako hondakinatarako dira?

ARIKETA PRAKTIKOA

Naturak bizitzen eta hazten laguntzen diguten baliabideak ematen dizkigu. Guk ere badugu naturari laguntzerik, oso modu errazean, gainera: birziklatuz. Horregatik, egin dezagun ariketa praktiko bat.

Zuek, gurasoen laguntzarekin, astebetetz behintzat, birziklatu egingo duzue.